

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

50 milioi euro baimendu dira Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetarako laborategiko materiala eta ekipoak erosteko

Esparru-hitzarmen batek arautuko du mota horretako materialen hornidura datozen 4 urteetan eta % 25 aurreztu ahal izango da

Lunes, 28 de marzo de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko bileran, Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileari esparru-hitzarmena sinatzeko baimena eman dio. Hitzarmena Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetako laborategi klinikoak behar diren erreaktiboz, materialez eta ekipoz hornitzeko kontratua izango da.

Esparru-hitzarmen horri esker, datozen lau urteetan mota horretako materiala erosi ahal izango da. Denboraldi horretarako kalkulatu den balioa 50.304.635 euro izango dira eta honela banatuko da:

2012. urtea: 12.000.000 euro

2013. urtea: 12.360.000 euro

2014. urtea: 12.730.800 euro

2015. urtea: 13.112.724 euro

Hauek dira hornidura hori izango duten Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroak: Iruñeko eta Tafallako Laguntza Espezializatuko zentroak, Elcanoko Laguntza Espezializatuko zentroa, Tuterako eta Lizarrako Ospitaleak, Tuterako eta Lizarrako Barrutietako osasun zentroak, Lehen mailako Arretako osasun zentroak eta Nafarroako Odol-Transfusio Zentroa.

Hitzarmenaren helburu nagusia osasun sistema babestu ahal izateko kostuei eustea da eta esparru hitzarmen horri esker osasun zentroak laborategiko materialaz hornituko dira Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategi guztietarako kontratu bakarra eginez. Hori hala izanik, % 25 aurreztuko dela aurreikusi da, gaur egun osasun zentro guztien artean 16 milioi euro erabiltzen direlako mota horretako materiala erosteko.